

# GIDA PEDAGOGIKOA




## ZER DA GFA ?

Gipuzkoa, lurraldeko udalerriek osatzen dute eta Gipuzkoako Foru Aldundia gobernu eta administrazio orokorra da.

Foru Aldundiak lurraldeko herritar guztiei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen ditu, besteak beste: gizarte zerbitzuetako laguntzak (adinekoak, ezinduak, pobrezian dauden pertsonak, indarkeria matxistaren biktimak); foru ogasuna (zergen kudeaketa); errepideak (eraiki eta mantendu); kultura eta kirolaren sustapena; gazteria (oporraldiak); garraio publikoaren plangintza (bidegorriak...)

|                 |                  |
|-----------------|------------------|
| Berdintasuna    | Ekonomia         |
| Euskara         | Gobernantza      |
| Hezkuntza       | Klima aldaketa   |
| Kohesio soziala | Kontziliazioa    |
| Mugikortasuna   | Partaidetza      |
| Zahartzea       | Zibersegurtasuna |



# GIDA PEDAGOGIKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN HARREMANTZEKO GIDA PEDAGOGIKOA

2019

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN HARREMANTZEKO GIDA PEDAGOGIKOA

2019

- [instagram.com/OrainGipuzkoa](https://www.instagram.com/OrainGipuzkoa)
- [twitter.com/OrainGipuzkoa](https://twitter.com/OrainGipuzkoa)
- [facebook.com/OrainGipuzkoa](https://facebook.com/OrainGipuzkoa)
- [youtube.com/OrainGipuzkoa](https://youtube.com/OrainGipuzkoa)

## ZERGATIK HARREMANDU



## GURE IRITZIEK GARRANTZIA DUTE

GURE IDEIEK GURE MUNDUA ERALDATU DEZAKETE. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN HARREMANDUZ, GURE LURRALDEA HOBETU ETA ELKARBIZITZARAKO PAUSOAK EMANGO DITUGU.



### Zer da GFA?

Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako gobernu organoa da. Lurraldeko instituzio gorena da. Bere gain ditu ogasuna, lurralde antolaketa, mugikortasuna eta gizarte gaiak. Egoitza Donostiako Gipuzkoa plazan kokatzen da.



### Zergatik harremandu?


Gure ideiek gure mundua eraldatu dezakete. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanduz, gure lurraldea hobetu eta elkarbizitzarako pausoak emango ditugu. Gure iritziek garrantzia dute.



### Nola harremandu?

Instagram, Facebook, Youtube... Gure eguneroko komunikazio tresnen bitartez harremandu gaitzke GFArekin. Natural eta zuzen.





# GIIDA PEDAGOGIKOA



## NOLA HARRE- MANDU?



### IDATZIZ



**Motz eta argi:** Ideia bakoitzarekin paragrafo bat osatuko dugu. Amaitzean bidaltzeko asmoa duguna irakurriko dugu. Ideia ona da mezua bidali aurretik gure lagun, tutore edo familiakideren bati mezua erakutsi eta ulermena frogatzea.

**Emojiak:** Gaizki ulertuak saihesteko eta aurrez aurreko komunikazioak duen gertutasun ukitua gehitzeko balio digute. Emoji bakoitzak bere esanahia du, ziurtatu ondo erabiltzen ditugula.

**Errespetuz:** Beti bete beharreko araua dugu hau. Agurra ere mezuaren zati da.

**Kontaktuaren garrantzia:** Mezuak eragina izan dezan, gurekin harremanetan jartzeko kontaktua argi eta garbi jaso beharko dugu.

### IRUDIZ



Irudi batek mila hitz baino gehiago esaten ditu. Azaldu zure mezua modu bisualean.

Gogoratu argazkietan ere gure kontaktua eta oinarritzko informazioa txertatzea komeni dela.

#hashtag-ak zentzuz erabili. Mezua hobeto ulertzeko tresna diren bitartean, emojiak eta gifak ongi etorriak dira. Gogoratu sare sozial irekietako irudiak publikoak direla.

### BIDEOZ EDO AUDIOZ




**Laburra eta argia:** Hasi zure burua aurkezten. Patxadaz hitz egin. Aurrez pentsatu azaltzea nahi dituzun ideiak. Mezu laburrak argiagoak dira, saiatu asko jota minutu baten zure mezua laburbiltzen.

Aurrez aurreko komunikazioan bezala, hartzailearengan pentsatu eta zaindu zure mezuaren totoa (Mezu atseginak hobeto ulertzen eta jasotzen dira).

**Errespetuz:** Beti bete beharreko araua dugu hau. Agurra ere mezuaren zati da.

**Kontaktuaren garrantzia:** Mezuak eragina izan dezan, gurekin harremanetan jartzeko kontaktua argi eta garbi jaso beharko dugu.

## ADIBIDEAK



Kaixo Xune naiz, 17 urte ditut, eta interneten topatu dudana ideia bat zuekin partekatu nahiko nuke ea guk ere antzerako zerbaitegin dezakegun.

Emakumeon berdintasuna lantzeko herri ezberdinetan espazio irekiak diseinatzen ari dira ikuspegi feministatik. Ea Gipuzkoan ere antzerako zerbaitegin dezakegun. Ni laguntzeko prest.

Eskerrik asko eta ondo segi!

AUDIOZ



BIDEOZ

